



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

2024ko merkataritzarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea

Alkateak, 2024ko urtarrilaren 30eko 360/2024 Alkatetza Dekretuaren bidez, 2024ko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu ditu.

Espediente Zk.:	COMSUB/2023/14
Dirulaguntza-lerroa	MERKATARITZARAKO DIRULAGUNTZAK
Aurrekontu-partida	33 4310 77101
Partidaren deskribapena	KAP. TRANSF. ENPRESA, MERKATARITZA ETA OSTALARITZARA
Zenbatekoa	90.000,00 euro
Laguntza emateko prozedura	ZUZENEAN EMATEA

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Basauriko Udalak herriko xehekako denda, jarduerak eta ostalaritza berritzatzeko eta beren lehiakortasuna hobetzeko emandako laguntza ekonomikoak zuzenean banatzeko deialdia.

2. Aplikazio-eremua

Oinarri hauetan araututako laguntzak honako gastu hauek finantzatzeko izango dira: enpresetan instalazioak egiten eta enpresak ekipatzen eta berritzatzen egindako inbertsioak; irudia, lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.

Dirulaguntzari dagokionez, ez da ekipamenduzat joko establezimenduaren ekoizpe-nerako zuzen-zuzenean erabilitakoa, ez bada xehekako merkataritza enpresariak inbertsio hori egin behar duela, aplikatzen zaion araudiak xedatutakoa betetzeko edo profesional-tasuna eta/edo lehiakortasuna hobetzea badakar.

3. Onuradunak

1. Oinarri hauetan jasotako laguntzak jaso ahal izango dituzte 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera merkataritza-establezimenduak berritzatu edo modernizatzeko lanei ekiten dieten pertsona fisikoek, pertsona juridikoek edo ondasun-erkidegoek. Era berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte 2023an zehar berauek eskatu, eta, aurrekontu-kontsignazioa agortu izanagatik, eskuratu ez zutenek (baldin eta eskabidea epe barruan aurkeztu bazuten, eta eskabideari oinarriotan eskatutako dokumentazio guztia erantsi bazioten).

— Enpresa txikia izatea. Zentzu horretan, eta Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, enpresa txikiak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak: egoitza soziala Basaurin duten enpresak —edo, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan arren, enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusten dutenak—, gehienez ere 50 langile dituztenak, eta urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra dutenak. Enpresaren datuak zehazteko, aintzat hartuko da ea enpresa autonomoa den ala, Gomendioaren irizpideen arabera, mendeko enpresa edo enpresa elkartua den. Horrelakoetan, datuak zehazteko kalkulua 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera egingo da.

— Herri Administrazioekiko zerga-zorrik ez izatea, eta, era berean, egunean egotea Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan. Merkataritza Atalak egiaztatuko du, ofizioz, ea Basauriko Udalarekiko zerga-zorrik dagoen ala ez.



- Enpresa urtebeteko gutxieneko antzinasunarekin eratuta egotea eta merkataritza-jarduera bat izatea, Hasiera-data izango da ekonomia jardueren gaineko zergan alta eman zeneko eguna (Fakturak ere urtea baino beranduago jaulki behar dira).
- 2023an laguntza jaso izan arren, 2024an ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2. Merkataritza-jardueraren titulartasuna aldatzen bada jarduera eskualdatu delako, bere forma juridikoa aldatu delako edo jarduera lehenagotik zegoen enpresa bategandik bereizi delako, urte bateko epea ez da berriro zenbatzen hasiko: eutsi egingo zaio aldaketa gertatu baino lehen hasitako zenbaketari. Merkataritza-jardueraren titulartasun-aldaketa onartuko da, bakar-bakarrik, familiazko oinordetza edo langileei egindako oinordetza bada, edo titulartasun-aldaketa dakarren forma juridiko-aldaketa gertatu bada. Aitzitik, ez dira zerga-arrazoiengatik, zio juridikoengatik edo arrazoi pertsonalengatik forma juridiko aldaketak onartuko, baldin eta jabeak berdinak badira.

4. Kanpo utzitakoak

1. Aparteko kasuetan salbu, ezin izango dute Laguntzen Plan honetan parte hartu beste erakunde batzuen laguntza-programetan (Bizkaiko Foru Aldundiarenetan edo Eusko Jaurilaritzarenetan) parte hartzen ari direnak.
2. Era berean, joko da kanpo daudela Administrazioaren erakunde, sozietate publiko edo/eta elkarteak, bai eta elkarte edo taldeak, interes ekonomikoko erakundeak eta aldi baterako enpresa-elkarteak izan ezik.

5. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

1. Diruz lagunduko dira 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako gastu eta inbertsioak. Laguntza jasoko dute, era berean, 2023an eskabidea aurkeztu, eta laguntzarik jaso ez zuten eskabideak. Hain zuzen ere, enpresetan instalazioak egiten eta enpresak ekipatzen eta berriztatzen egindako inbertsioak; irudia, lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko egindako inbertsioak.
2. Laguntza jaso ahaliko dute oinarri hauetan jasotako kontzeptu batzuei banaka-banaka atxikita egoteaz gain, garapen-proiektu bakoitzeko aholkularitza-prozesuan gomendatutako edo proposatutako jarduerekin bat datozen gastuak; hau da, jarduerak, merkatuaren enpresa-garapen prozesuaren barruan, aurrera eramandako estrategia zehatz bati dagozkionak (merkatu berrietan sartzea, berrikuntzak produktuan/prozesuan, IKTetara egokitzea eta abar).
3. Zehazkiago, honako hauek hartuko dira laguntza jaso dezaketen gastutzat:
 - Merkataritza-lokalen barrualde eta kanpoaldea egokitzeko lanak: esparrua atontzea, lokalaren distribuzioa aldatzea edo/eta lokalaren itxura hobetzea. Kasu horretan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
 - Mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berritze lanak. Kasu horretan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dagozkion obra- edo instalazio-lizentzietan adierazitako zenbatekoak.
 - Establezimenduan segurtasun- eta irisgarritasun-neurriak ezartzeari dagozkionak.
 - Makina elektroniko edo mekanikoak.
 - Merkataritzako altzariak eta ekipamendua erostea.
 - Informatika eta software ekipoak, baldin eta establezimenduan bakarrik erabiltzeko badira, hau da, salmenta-puntuko terminal bati edo horren pareko gailu bati badagozkio. Gainera, beharrezana egokiro argudiatu beharko da.
 - Aholkularitza-taldeak kontratatzea merkataritzako kalitate-arauak ezartzeko edo arau horiek ziurtatzeko.
 - Argizatzerak, erakusleihen-apainketarako teknika berritzaileak ezartzera edo salmenta-puntua diseinatzerak eta girotzerak bideratutako baliabideak optimizatzea.

**6. Laguntza jaso ezin dezaketen kontzeptuak**

Honako gastu hauek laguntza hauetatik kanpo geratuko dira:

- Balio erantsiaren gaineko zerga, ez bada enpresari gastua eragiten diola. Hala bada, egiaztatu egin beharko da, Foru Ogasunaren egiaztagiririak aurkeztuta.
- Lokala erosi edo alokatzea.
- Ibilgailuak erostea.
- Merkaturatu beharreko salgaiak eskuratzea.
- Merkataritza-jardueraren berezko elementu suntsikorak (poltsak, biribilkiak, kartu-txoak, orriak, bulegoko materiala, baxera, mahai-tresnak, kontsumigarriak, garbiketaproduktuak, eta abar).
- Enpresaren jarduera bera osatzen duten zuzeneko ekoizpeneko ekipoak, eta etxetresna elektrikoak, makineria eta bestelako tresna elektrikoak erostea, salbu eta inbertsio hori egin beharra justifikatzen bada aplikatu beharreko araudira egokitzeko edo profesionaltasuna eta/edo lehiakortasuna hobetzeko.
- Lokalak garbitzea eta desinfektatzea.
- Aseguruak, harpidetzak, urteko kontrol-zerbitzuak, aholkularitzak eta aholkularitza juridikoak ordaintzea.
- Telebistak eskuratzea.
- Enpresaren jarduera garatzeko beharrezkoak diren pakete informatikoak edo ofimatika programak, betiere enpresaren lehiakortasuna hobetzen ez badute, baita haien lizentziak edo kuotak ere. Antibirusak ez dira sartzen.
- Zerbitzu teknikoak eta konponketa edo mantentze-zerbitzuak.
- Jardueraren funtzionamendu-gastuak.

7. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak egiteko, dagokion eskabide-orria aurkeztuko da Basauriko Udaleko Herriarren Informazio eta Arretarako Bulegoan. Bestela, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1 Legearen 39/2015. artikulua baimendutako edozein bide ere erabili ahalko da. Eskabidea aurkezte hutsagatik, interesdunak Oinarri hauetako edukia onartzen duela joko da.

8. Eskabideak aurkezteko epea

1. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean, eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da. 2023an zehar eskabidea aurkeztu eta ordainketa jaso ez zutenek, ez dute eskabide berririk aurkeztu beharko; eta eskabide horiek, gainera, lehentasuna izango dute.

9. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabideei honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkie:

- a) Egindako inbertsioen, berriztatzeen edo erosketen memoria txiki bat. Memoriak gastu guztiak deskribatzeko eta justifikatzeko izan behar du, gastu bakoitza eta helburua zehaztuz, eta azalpen labur bat eman behar du inbertsio horrek establezimenduari zer neurritan dakarkion hobekuntza. Gastu horiek justifikatzeko argazkiak aurkez daitezke.
- b) Enpresa txikiak definitzen dituzten ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitortpena, Oinarri hauen 3. artikuluan jasotzen denaren arabera. Zentzu horretan, Oinarriotako II. eranskinean agertzen den dokumentua bete beharko da.
- c) Enpresak zerga-betebeharrak dituen administrazio publiko guztiak emandako ziurtagiri originalak, enpresak betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.



Ziurtagiri horien ordeztan, eman beharreko dirulaguntza 3.000 eurotik gorakoa ez bada, Udalak emandako erantzukizunpeko adierazpena aurkez daiteke.

- d) Sozietateen kasuan, eskabidea egiten duen pertsona sozietatearen ordezkari gisa ari dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, sozietatearen IFK eta pertsona fisikoaren NANA edo lan-baimena.
- e) Hirugarrenaren fitxa, denda edo enpresa eskatzailearen banku-datu guztiak jasota. Fitxak enpresaren kontua dagoen finantza-erakundearen ziguila eduki beharko du.
- f) Oinarri hauetan diruz laguntzeko kontzeptu gisa jasotakoak finantzatzeko enpresak egin dituen edo egin asmo dituen beste finantziario-eskaerei buruzko aitorpena, Oinarriotako III. eranskineko ereduari jarraituta.
- g) Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena, IV. eranskinarekin araberakoa.
- h) Diruz lagun daitezkeen eta benetan ordainduak izan diren gastuak jasotzen dituzten fakturen eta ordainketa-agirien jatorrizkoa eta kopia. Fakturretako eta ordainketa-agirietako datak dirulaguntza eskatzen den urtearekin bat etorri beharko dute. (epeakako ordainketak badira, faktura osorik ordaindu beharko da urtean, eta ordainketa guztiak egin ondoren ordainduko da).
- i) Obra-lizentzia eta tasa ordaindu izanaren agiria (egokitze-lanak egiten diren kasuetan).

2. Ez bada eskatutako dokumentazio osoa aurkezten, Basauriko Udalak errekerimendua egingo dio enpresa edo merkataritza-establezimenduari, ez-betetzea zuzen dezan edo falta dena aurkez dezan. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio eskatzaileari, jakinarazpena jasotzen duen datatik zenbatzen hasita —hala egiteko xedatzen du-eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua—. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztu ez bada, joko da eskatzaileak uko egin duela, eta eskabidea arxibatu egingo da.

Halaber, Basauriko Udalak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eska lezake, enpresa eskatzaileak Laguntza Plan honetan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea ahal izateko.

10. Dirulaguntzen zenbatekoa

Basauriko Udalak gastu eta/edo inbertsioak kofinantzatuko ditu: oro har, zenbatekoaren %40raino, eskabideko 1.000,00 euroko mugarekin. Jarduera-titular bakoitzak nahi beste eskabide aurkeztu ahal izango ditu, urtean zehar. Establezimenduan egindako inbertsioaren xedea baldin bada mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbidea errazteko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak egitea edo establezimendua irisgarriagoa egiteko neurriak ezartzea, Basauriko Udalak gastu eta inbertsioen %50 finantzatuko du, eskabideko 1.200 euroko mugarekin.

Aipatutako zenbatekoak %10 igoko dira, hau da, %50 edo %60raino heldu ahal izango dira —inbertsioaren izaera zein den—, baldin eta dena delako zerbitzua egoitza fiskala edo establezimendua Basaurin duen enpresa batek ematen badu. Gehieneko kopuruak, berriz, aurreko atalean adierazitakoak izango dira.

Laguntza horiek ez dira itzuli behar izango.

11. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza hauek jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Laguntzak erabiltzea berariaz horien xede diren kontzeptu eta zenbatekoetarako; eta laguntzok adierazitako epeetan erabiltzea.
- b) Basauriko Udalak egin ditzakeen egiaztatze-jardueren eta dagozkion finantza-kontrol jardueren menpe jartzea.



- c) Basauriko Udalarari jakinaraztea xede bera duten dirulaguntzak edo bestelako laguntzak jaso direla; eta jakinaraztea, era berean, dirulaguntza hau emateko aintzat hartuak izan diren beste edozein inguruabar objektibo zein subjektibotan egondako aldaketak. Horretarako, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da.
- d) Laguntza jaso duen establezimenduan jarduera ekonomikoa egotea, gutxienez, urtebetez (laguntza jaso duen fakturaren datatik zenbatzen hasita).
Establezimendua adierazitako epea baino lehenago ixten bada, enpresa onuradunak Udalarari hori jakinarazi, eta emandako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko dio: jarduera eten denetik urtebetea amaitu arte doan zatia, alegia.
- e) Enpresak establezimenduak baditu udalerrri barruan eta kanpoan, inbertsioak herriko establezimenduan egin beharko dira. Onuradunak establezimenduak baditu udalerrri kanpoan eta barruan, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du, adieraziz inbertsioa Basauriko establezimenduan egingo dela.
- f) Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea, zeinaren bidez Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen baita. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

12. Aurrekontu-kontsignazioa

Basauriko Udalak, 2024ko ekitaldian zehar, 90.000 euro bideratuko ditu deialdi honetako diru-zuzkiduretara, eta honako partida honen kontura ordainduko da: 33431077101 Kap. transf. enpresa, merkataritza eta ostalaritza. Ekonomia- eta merkataritza-sustapena.

13. Laguntzak ordaintzea

Onuradunak, egindako gastuak justifikatzeko, dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak aurkeztuko ditu. 600 eurotik gorako fakturen ordainketak banku-agiri bidez egiaztatuko dira: bai transferentzia-egiaztigiri bidez, bai helbideratze-egiaztigiri bidez, bai horien parekoen bidez. Faktura bakarra aurkeztu beharko da, baldin eta dirulaguntza eskaeran hornitzaile beraren zenbait faktura badaude eta horiek guztiek bat egiten badute merkataritza-establezimendu baterako inbertsio edo eskaera bakarrarekin. Era berean, ezingo dira fakturak zatikatu, horietako bakoitzak 600 euroko zenbatekoa ez gainditzeko. Eta fakturok ordaindu beharko dira banku-transferentzia bidez, horiek helbideratuta edo pareko bide bat erabilia.

Aurrekontu-partidan jasotako kontsignazioa agortzen bada ere, ez dira baztertuko 2024an zehar eskatutako laguntzak, ez eta 2023an zehar aurkeztu, eta, aldeko ebazpena jaso eta gero, kreditua agortu izanagatik zegokien laguntza jaso ez zituzten eskaerak ere. Horiek guztiak hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, kasuan-kasuan hala ezartzen bada.

14. Aplikatzea dagokion araudia

Prozedura arautuko dute onetsitako Oinarri Arautzaileek beraiek; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak; eta udal dirulaguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

15. Onuradunei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna

Basauriko Udalak bere gain hartzen du laguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko konpromisoa.

Basaurin, 2024ko otsailaren 7an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren